# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 3809

*1366/2025 EBAZPENA, abuztuaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Francisco Serna Rodríguez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Kalitateko zuzendariordearen kargutik kentzen baita.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 29ko 1487/2024 Ebazpenaren bidez, Francisco Serna Rodríguez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Kalitateko zuzendariorde izendatu zen (2024ko azaroaren 25eko EHAA, 229. zk.).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak kontuan hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Francisco Serna Rodríguez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Kalitateko zuzendariorde kargutik kentzea, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko abuztuaren 31ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordetzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.